

Liburu eta paperei loturiko bizitza

Aita Joan Joxe Agirrek 40 urte baino gehiago daramatza beneditarrek Lazkaon duten liburutegia "elikatzen". Euskal Herriari buruzko milaka liburu, aldizkari, pegatina eta panfleto bildu izan ditu

BEASAIN. Aita Joan Joxe Agirre beneditarrak urtetan bildutako paperek egoitza berria daukate Lazkaon, beneditarren komentuaren alboan dagoen eraikin berrian. Asko izango dira monje beneditarrak egindako lanaren berri lehen aldiz orain izango dutenak, dotore ematen duen eraikin modernoarekin aurrez aurre topatu ondoren, beharbada, eraikinaren inaugurazioak medioetan jaso zuen arretaren ondorioz, akaso. Baina urteak dira Aita Agirrek bere bizitza liburu eta paperei lotu zienetik. Urteak, bai; bizitza erdia, komentuko bibliotekaren ardura bere gain hartu zuenetik.

1970. urtearen bueltan izan zen hori. Urtebete lehenago itxi zuten beneditarrek komentuan zuten Batxilergoko Kanpo-Kolegioa, urtetan bailarako hainbat eta hainbat gazteri goi mailako ikasketetarako bidea ireki ziena -zabaldu berria zuten Beasaingo Batxilergoko Institutua, eta inguruko gazteek bazuten jada non ikasi-. Hortaz, irakasle lanak utzi, eta monjeen artean ardura berriak banatu zituzten: batek baratza, besteak inprenta... Aita Agirreri inork nahi ez zuen egitekoa eskaini zioten: komentuko bibliotekaren ardura. Orduko hartan ezer gutxi zekien liburuei buruz, baina ez zuen ezetzik esan. Baldintza bakarra jarri zuen: kanpora joatea eginkizun berriaren inguruko ikasketak egitera. Hartara, komentutik irten eta esperientzia berriak bizi ahal izango zituen. Baietz esan zioten. Eta horrek Aita Agirreren bizitza aldatu zuen, momentu hartan hori imajinatzea zail gertatzen zen arren.

Montserratera Aita Agirre, noski, Montserratera joan zen ikastera. Jakina da pisu handiko komunitate beneditarra dagoela bertan; eta jakina da, baita ere, bertako Biblioteka entzute handikoa dela mundu mailan. Han hiru urte eman zituen, eta han ikasi zituen liburuei buruz jakin beharrekoak. Berak esan ohi du han piztu zitzaizola liburuenganako harra, han topatu zuela bere bigarren bokazioa. Egiaz, liburu-gosea sortu zitzaion. Liburu-gosea eta, oro har, paper-gosea ere bai. Han ikasi baitzuen liburu bat bezain baliotsua izan daitekeela lurrean aurkitutako panfleto bat, edo pegatina bat, edo kartel bat... Montserraten Catalunyarako egiten zuten moduan, Aita Agirrek Euskal Herriari buruzko liburuak, aldizkariak, paperak... bildu nahi zituen. Artean Franco agintean zegoen, eta asko zen erbestean edo klandestinitatean ateratzen zena... hori guztia ere bai. Dena bildu nahi zuen, ordu artakoa eta iraganekoa... dena. Ideia horrekin itzuli zen Euskal Herrira.

Hala, 1973an ekin zion Aita Agirrek bere eginkizun berriari: alde batetik, Lazkaoko beneditarren biblioteka antolatu eta osatu, eta beste alde batetik, Euskal Herrian -edo atzerrian- nahiz Euskal Herriari buruz ateratzen zen guztia bildu. Komentuko biblioteka egoera tamalgarrian zegoen. XX. mendearen hasieran Lapurdiko Urten dagoen Belloceko monastegitik Lazkaora iritsi ziren beneditarrek nahiz XIX. mendearen erdialdera arte komentuan bizi izan ziren karmeldarrek bildutako ehunka liburu zeuden bibliotekan; beste asko eta asko monjeen geletan, komentuko ganbaran edo trastelekuan, ahaztuta eta hautsez beteta. Makina bat lan egin behar izan zuen Aita Agirrek hori guztia antolatzeko! Hori bakarrik ez. Euskal gaiekin erlazionatutako materiala biltzen hasi zen: liburuak, aldizkariak, panfletoak, kartelak, pegatinak, egutegiak... horietako asko eta asko klandestinitatean edo erbestean ateratakoak. Etorkizunera begira ekin zion lan horri guztiari, egunen

batean bere liburu eta paperak, historialari, soziologo, kazetari eta abarrentzat baliagarri izango zirelakoan. Zalantzarik gabe, Aita Agirrek ordura arte inork hartu gabeko ardura hartu zuen bere gain.

Pixkanaka-pixkanaka, materiala biltzeko sarea egituratu zuen bere inguruan, lagunekin, ezagunekin, komentua utzia zuten gazteekin, ikasle ohiekin... Bidaia asko egin zituen Iparraldera, horietako asko komentuan inori ezer esan gabe, eta muga pasatzerakoan beldurrak jota, noski. Beneditar lagun baten bitartez, bandoa jo zuen Ameriketako euskal etxeetan, euskaldunek ateratako guztia Lazkaora bidaltzeko eskatuz... Handik gutxira, alderdi politikoetan, sindikatuetan eta beste hainbat erakundeetan partaide izan zirenen paperak jasotzen hasi zen, berak ondo gordeko zituenaren konfiantza zeukaten eta. Denborarekin, bilketa sare horren parte handi bat Euskodok erakundearen bitartez bideratuko zuen, gauzak modu antolatuagoan jasotzeko. Material asko eta asko eskuetan edukitzea delitu zen garaian hasi zuen hori guztia eta, gauzak horrela, Euskal Herriko ondare dokumentalaren parte garrantzitsu bat salbatu zuela esan daiteke. Eta laster izan zituen ikertzaileak ate joka. Bildutakoa modu egokian gordetzeko, bestalde, komentuko instalazioak egokitu zituen, bere eskuekin egokitu ere.

Baina laster txikia geratu zitzaion biblioteka; hortaz, zabalkunde lanak egin behar izan zituen, eta gelak, pasilloak... hartu zituen materiala gordetzeko, gerora beste hainbat bider egingo zuen moduan; nonbaitetik ekarritako apalategi zaharkituak, norbaitek emandako artxibo-kaxa zaharrak... ahal zuen moduan gorde zuen emandakoa. Eta lehen antolaketa lanak egin zituen. Bakarrik. Urte luzez bakarrik. Salbuespenekin. Izan ere, handik eta hemendik lortutako diru-laguntza txikiei esker, tarteka izan zituen, bai, laguntzaileak: bibliotekari gazteak, liburu eta aldizkariak katalogatzen lagundu ziotenak, denborarekin, biblioteka informatizazioaren bidean jarri zutenak.

Orduak eta orduak Dena dela, bakardadean egindako lan eskeraren meritua dauka Aita Agirrek, zalantzarik ez. Orduak eta orduak eman ditu lanean, igande eta jai egunak, oporrak... Ezin burutik kendu bere liburu eta paperak, berak dioenez, ametsetan ere ez. Egindako lan horri esker, bildutako materiala Euskal Herriko historiaren azken berrogei urteak ezagutzeko eta ikertzeko ezinbestekoa dela esan daiteke. Hala, Lazkaoko Beneditarrek euskal kulturaren alde egindako lanarengatik erreferentzia bilakatu dira.

Horren guztiaren etorkizuna bermatu nahian, lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten 2007an Lazkaoko Beneditarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak. Horren arabera, beneditarrek eraikin bat altxatu zuten, komentuen alboan, urtetan bildutako bilduma, artxibo eta aldizkariaren egoitza izan zedin. Horren emaitza da 2010eko abenduan inauguratu zen eraikina. Bertan daude, orduan, aldizkariak, bildumak eta artxiboak.

2011an, bestalde, aurrerapauso nabarmena emango da. Lazkaoko Beneditarrek, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Lazkaoko Udalak Fundazioa sortuko dute, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, Aita Agirreraren zuzendaritzapean egongo dena.

Hartara, bokazio faltekin beneditarren komunitatearen biziraupenerako suposatzen duten eragozpen handiari aurre egin, eta urtetan bildutako funtsei babes egokia emango zaie. Aita Agirrek egindako lanari segida eman eta garai berrietara egokitu; hori izango da Fundazioaren helburua. Eta Aita Agirre hori izango da, beti bezala lanean, atsedetik gabe. Beti bezala prestu paperak jasotzeko eta gizartearen esku jartzeko.